

ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVII. SARIKETA

OINARRIAK 1. KATEGORIA ENPRESA EKIMEN BERRIKO PROIEKTUAK

Goiekik, Goierriko Garapen Agentziak, ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVII. SARIKETA abian jarri du, horretarako eskualdeko enpresen laguntza duelarik.

Lehiaketa honek bultzatu eta indartu nahi dituen baloreak honako hauek dira: sustatzailearen irudia sustatu, berrikuntza, enpresen garapena eta eskualdean enplegua eta aberastasuna sortu. Azken finean, Goiekik, enpresa mailan Goierri bertan egia bihur daitezkeen asmo guztien alde jarri eta bultzatu nahi ditu. Goierriko ekonomia berpizteko eta eguneratzeko kultura indartzea dakarten proiektu guztien alde egin nahi du.

HELBURUAK

- Sustatzailearen irudia sustatu.
- Balio erantsi altuko enpresa berritzaileak sustatu.
- Eskualdean lana eta aberastasuna sortu.
- Enpresa berrien garapena eta sorrera sustatu.
- Urteko proiektu onena saritu.

NORI ZUZENDUA

2023-2024 urtean zehar, negozio ideia bati buruz bideragarritasun plana landu eta enpresa martxan jarri duten sustatzaileei zuzendua dago (banakako zein taldekako sustatzaileak).

Enpresa proiektu hauek, balio erantsi bat eskaintzeaz gain, Goierri eskualdean kokatuak izan beharko dira.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Agiriak aurkezteko epea **2024ko irailaren 27an** amaituko da.

KONTUAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak epaimahai baten bitartez izango dira aztertuak lehen fase batean.

Lehen fase honetan aukeratuak izan diren proiektuak, epaimahaiak beharrezkoa ikusiko balu, euren proiektua aurkezteko aukera izango dute.

Kontuan hartuko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Produktu edo zerbitzuaren berrikuntza-maila eta bere bideragarritasuna merkatuan.
- Proiektu sendoa izatea.
- Sustatzailearen konpromisoa enpresa proiektuarekin.
- Epe ertainean hazteko, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko aukerak.
- Enpresa proiektua Goierri eskualdean kokatzea.

SARIAK

Enpresa Ekimen Berriko proiektu onenak ondorengo sariak jasotzeko aukera izango du:

- 6.000€-ko diru-kopurua.
- Goilan-en eskutik 3.000€-ko diru-kopura, beti ere sortu den enpresa Kooperatibaren izaera juridikoa baldin badauka.
- Goiekiko enpresa gunean kokatzeko aukera.
- Enpresa eta Enpresa Ekimen Berrien arloak eskainiko dituzten zerbitzuei sarbidea.
- Jardueraren lehen urteetan aholkularitza, babeseta eta jarraipena.

Epai-mahaiak, aurkeztutako egitasmoaren maila txikiegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Negozio ideia bideragarritasun plana, proiektuaren balore nagusiak azalduko dituen. Nahi izanez gero Goiekik duen eredua eskuragarri dago.

Enpresa proiektuak formatu digitalean aurkeztu beharko dira, bai Goiekiko bulegoetan (Goierri Berrikuntza Gunea- NBF Eraikina- Arranomendia 5, Ordizian) edo ondorengo e-mail helbidera: **maialen.goieki@goierri.eus**

Informazio gehiago:

- Telefonoa: 943 16 18 31
- <http://www.goierri.eus/lehiaketa>

EPAIMAHAIKIDEAK

- Goierri eskualdeko 3 enpresen ordezkari.
- LORTEK Zentro Teknologikoko ordezkari 1.
- Goierri Beheko Industrialdea-ko ordezkari 1.
- Banakako ordezkari 1.
- Goiekiko 2 ordezkari.

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Lehiaketaren epai-mahaiak, hala baderitzo, aurkeztu direnekin elkarriketak izango ditu.
- Saria jaso ahal izateko, Ogasun Publikoan eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela egiaztatu behar da.
- Saria jasotzeko, pertsona/talde sustatzaileak, proiektu irabazlea izendatzen den momentutik bi urteko epea izango du proiektua martxan jartzeko. Sustatzailearen eskuetatik kanpo gelditzen den arrazoiengatik epe hau baina

denbora gehiago beharko balitz proiektua martxan jartzeko (lizentzien tramitazioengatik, etab.), epe hau luzatu ahal izango da, beti ere alde zuzenetik horrela eskatzen bada eta Goiekiko teknikariek horrela erabakitzen badute.

- Aurkeztutako proiektuak edo asmoak epaimahaikideek isiltasun osoan gordeko dituzte.
- Parte hartzen duena bera da aurkeztutako agiri horietan esan duenaren egiazkotasunaren erantzule bakarra; Saria ematen duten erakundeak inondik inora ere ez daude derrigortuak hor esandakoak egia ala gezur diren aztertzera edo egiaztatzerara, baina hala ere, hala egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat joko balute, aukera dute hori egiteko.
- Saria ematen duten erakundeek ez lukete inongo erantzukizunik aurkeztutako asmoak ustiatzeko proposatzen denak edo parte hartzaileak aurkeztutako edozein agirik beste inoren eskubideak modu batean edo bestean urratuko balitu, hau da, jabego intelektualaren, industria-jabegoaren edo beste edozein motatako jabegoren eskubideak urratuz gero.